

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3010

127/2014 DEKRETUA, ekainaren 24koa, Lan Munduan eta Gizartean Txertatzen Laguntzeko Sarea - RAIS Elkartearen gizarte-interesekotzat aitortzeko dena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatzen denez, gizarte-interesekotzat aitortu ahal izango dira gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak –arazuz ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak–, hain zuzen ere aitortzeko haien ibilbidea eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreak EAEko gizarte-zerbitzuen garapeneran alde ematen duen laguntza.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitortzea lortzeko aplikatu beharreko baldintzak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, Lan Munduan eta Gizartean Txertatzen Laguntzeko Sarea - RAIS Elkarteak aipatutako aitortzea eskatu du, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea, gizarte-ekintzaren arloan egiten dituen jarduerengatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jakitera eman duenez, Lan Munduan eta Gizartean Txertatzen Laguntzeko Sarea - RAIS Elkartearen irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 2000n eratua; haren xede nagusiak hauek dira: gizartetik baztertuta edo hala geratzeko arriskuan dauden giza taldeen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea; baliabideak garatzea pertsonen euren buruari lagundu diezaizoten duintasuna eta beregaintasuna berreskuratzen; norik bere gaitasun pertsonalak eta trebetasun sozialak deskubritu eta garatu dezala sustatzea, banakako bide horretan lagunduz. Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jardueraren etenik gabe burutu duela 2008tik, Euskal Autonomia Erkidegoan, nagusiki.

Urriaren 7ko aipatu 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluaren dekretu bidez egingo da gizarte-intereseko aitortzea, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetuko baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 24an egindako bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aitortzea Lan Munduan eta Gizartean Txertatzen Laguntzeko Sarea - RAIS Elkartearen gizarte-interesekoa dela, burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

2. artikulua.– Aitortzea Lan Munduan eta Gizartean Txertatzen Laguntzeko Sarea - RAIS Elkarteari aitortzen honen berezko eskubideak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

2014ko uztailaren 4a, ostirala

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.